



Arartekoaren 2018R-1381-17 Ebazpena, 2018ko urriaren 25ekoa; horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio ezespren-ebazpena berrikusteko eta kexagileak eskatutako laguntza aitortzeko. Hain zuzen ere, kexagileak kargura duen bigarren semearengatik laguntzaren mantentzeko egin du eskaera, *seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuaren arabera.*

Aurrekariak

1. Herritar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu du ez dagoelako ados Eusko Jaurlaritzak bigarren semearen jaiotzagatik eskatutako laguntza ekonomikoa ukatu izanarekin.

Kexagileak bi seme-alaba adingabe ditu eta arazorik gabe jaso izan ditu bi seme-alaben jaiotzengatik eskatutako laguntza ekonomikoak, *seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuaren arabera.* Izan ere, arau horrek eskatzen dituen betekizun guztiak betetzen zituen. Hala eta guztiz ere, 2016ko maiatzaren 23an bigarren seme/alabagatik zegokion laguntza eskatu zuen jaiotzaren ondorengo bigarren urtean, zehazki, mantentze-laguntza izenekoa (kontuan hartuta laguntza horien segidako traktuko izaera). Orduan, laguntza hori ukatu zitzaion Eusko Jaurlaritzak jo zuelako ez zuela behar bezala egiaztatu Euskadiko administrazio-auzotasunaren antzinasuna. Egiaztatu ez izanaren arrazoia egitate honekin dago lotuta: 2016ko maiatzean, familia hau bizilekuz aldatu zen, euskal udalerrri batetik EAEn kokatutako beste batera eta, azkenengo bizilekuaren udal-eroldaren agiria aurkezterakoan, horretan ez ziren agertzen Euskadiko beste udalerrri batzuetako aurreko bizilekuak. Hala ere, paradoxikoki, Eusko Jaurlaritzak familia honen aurreko erroldatzearen egiaztagiria eduki behar zituen; izan ere, aurretik bi seme/alaben jaiotzengatik eskatutako laguntzak eman zizkion, hain zuzen ere, agiri horietan oinarrituta.

Kexagileak gora jotzeko errekurtsua jarri zuen Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendariaren 2016ko azaroaren 14ko ebazpenaren aurka, ebazpen horrek ukatu egin baitzion eskatutako laguntza, *Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuaren 4.2. artikuluan oinarrituta.* Artikulu horren arabera, *"onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan bizi behar du modu eraginkorren, eta bertako eroldan egon, gutxienez eskaera aurkeztu baino urtebete lehenagotik. Diru-laguntza hauek eskatu ditzake ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan bizi eta eroldan agertuta eskaria aurkezteko unean, hura aurkeztu baino hamabi hilabete lehenago modu jarraituan bizitzen eta erroldatuta egon ez dena, baina azken hamar urteetan Euskadiko Autonomia Erkidegoan egoitza eta errolda bost urte jarraitu egiaztatu ditzakeena".*





Aipatutako ebazpenaren aurkako gora jotzeko errekursoan, kexagileak laguntza hauek arautzen dituen dekretuaren 4.2. artikulua eskatutako EAEko egoitza eraginkorraren betekizuna betetzen zuela alegatu zuen. Oraingoan, 2016ko maiatzetik egoitza ezarrita zuen udalerriko udalak igorritako errolda-ziurtagiriaz gain -hasierako eskaeran aurkeztu zuena-, EAEko beste udalerritateko aurreko egoitzaren errolda-ziurtagiria aurkeztu zuen, hau da, 4.2. artikulua betekizuna betetzen zuela egiaztatzen zuena.

Gizarte Politiketako Sailburuordearen 2017ko martxoaren 17ako ebazpenak gora jotzeko errekurso hau ezetsi zuen *Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuaren 4.2. artikuluan* eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 118. artikuluan oinarrituz. Izan ere, administrazioak, Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 68. artikuluan oinarrituta, hasierako eskaera hobetzeko zuzenketa-epea ezarri zuen eta, epe horretan, interesdunak ez zuen Euskadiko egoitza eraginkorra egiaztatzeko moduko ziurtagiri nahikorik aurkeztu, laguntza hauek arautzen dituen dekretuaren 4.2. artikulua terminoetan. Dokumentazio hori gora jotzeko errekursoaren fasean aurkeztea garaiz kanpokotzat hartzen da Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 118. artikulua araberan. Hortaz, laguntzaren ezespenaren aurka aurkeztutako errekursoa ezesten da.

2. Egitate horien aurrean, **Arartekoak informazio-eskaera bat egin zion Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari**. Eskaera horretan, aurretiaz eta horiei erantzuteko moduko argibideak jasotzearen zain, zenbait gogoeta helarazi zituen; funtsean, erakunde honek adierazi zuen egiaztatu zuela herritar horrek materialki betetzen zuela laguntza hauen dekretu arautzailearen 4.2. artikuluan ezarritako EAEko egoitza eraginkorreko betekizuna. Horrez gain, gogorarazten zuen herri-administrazio guztiek hornitu behar dutela duten dokumentazioa, herritarrei hori aurkezteko eskatu gabe eta, beraz, herritarrek eskubidea dutela administrazio jardulearen aurrean ez aurkezteko beste batzuetan administrazio beraren aurrean aurkeztu duten dokumentazioa.
3. Bere **erantzunean, Eusko Jaurlaritzak adierazten du**, laburki, hasierako eskaera zuzentzeko izapidetzea gaituta –ez zegoen egiaztapen nahikorik laguntza hauen arauak eskatzen duen EAEko egoitza eraginkorreko epearen inguruan–, interesdunak, administrazioak egindako zuzentzeko errekerimendua oso argia izan arren, ez zuela Euskadiko egoitza eraginkorraren betekizuna betetzen zuenaren egiaztagiririk aurkeztu. Izan ere, bizi izandako azken euskal udalerriko errola-ziurtagiria soilik aurkeztu zuen eta, horretan, arau aplikagarriak ezartzen duen Euskadiko egoitza eraginkorreko epea baino epe laburragoa egiaztatzen zuen. Hortaz, zentzu horretan, ez zuen bete Eusko Jaurlaritzak zuzentzeko izapidetzean egindako errekerimendu esplizitua. Horrela, Eusko Jaurlaritzak azpimarratzen du dokumentu hori errekurso-fasean aurkeztea garaiz kanpokoa dela, 39/2015



Legearen 118. artikuluan ezarritakoaren arabera. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak erantzunean argitzen du, laguntzak mantentzeko eskaera bat denez (bigarren semearen bigarren urtean), beharrezkoa zela, dekretu arautzailearen laguntzak eskatzeko epeari buruzko 16.b) artikulua aplikatuz, interesdunak egiaztatzea, nolahi ere eta eskaera urte horretan beranduagoa aurkeztu izana gorabehera, 2016ko urtarrilaren 1ean, bere eta bere seme-alabak etxebizitza berean bizi zirela. Azkenik, Eusko Jaurlaritzak zehaztu du, *Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen* Xedapen Iragankorraren c) atalaren arabera, prozedura honi aplikatu behar zaion araua dela (kontuan hartuta hasieraren data) aurreko prozeduraren legea, hau da, *Herri-administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko abenduaren 22ko 30/1992 Legea*. Hala ere, adierazten du errekurtsoen araubideak *Herri-administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean* ezarritakoa bete beharko duela, kasu honi aplikatu beharreko arauketa iragankor horren arabera. Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzak baieztatu dezake ez dela 39/2015 Legearen indarreko 28. artikulua aplikatu behar; horretan aipatzen da beste administrazio batzuek idatzitako dokumentazioa ez aurkezteko eskubidea izango dutela. Aitzitik, eskubide hori jasotzen duen 30/1992 Legearen aurreko 35. artikulua aplikatu behar da, soilik administrazio jarduleak duen dokumentazioa aipatzen duena. Gauzak horrela, azken manu horren arabera, gobernuak bere erantzunean argitu zuen Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak familia hori egungo bizilekuaren aurretik beste euskal udalerrri batean bizi zela egiaztatzen duen dokumentazioa zuela. Hala eta guztiz ere, zehazten du dokumentazio horrek ez zuela hartzen arau aplikagarriak eskatutako epea, hau da, orain ukatutako laguntzaren eskaeraren data baino urtebete lehenago. Izan ere, aurreko data batean igorri zen (bigarren semearengatik aurreko eskaera zela-eta); beraz, –dokumentu hori kontuan hartu arren– gobernuak uste du ezin dela egiaztatutakotzat eman laguntza hauek arautzen dituen dekretuaren 4.2. artikuluan ezarritako egoitzaren betekizuna betetzen dela.

Hortaz, beharrezko egitate eta zuzenbide-elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. **Esparru juridikoa eta diruz lagundu daitezkeen egoerak:** Azaldutako gaiaren azterketa *Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuaren* esparru arautzailean kokatu behar da; bertan jasotzen da, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza bat balia dezaketen (diruz lagun daitezkeen egoera) kasuen artean, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den familia-unitate baten barnean seme edo alaba bat jaiotzea, baldin eta autonomi erkidegoko egoitza eraginkorreko epe zehatz bat egiaztatu ahal badu. Herri-administrazioak, kasu honetan, Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi eta seme-alabak



dituzten familiei diruz laguntzeko modu bat da. Beraz, laguntza horiek eskuratzeko eskubidea dago, baldin eta arau horretan ezarritako betekizunak betetzen badira; haien artean nabarmendu behar da, laguntzak eskatzearen oinarri den jaiotako seme edo alabaren seme-alabatasunaren egiaztapena eta Euskal Autonomia Erkidegoan denbora-tarte zehatz batzuetan benetan bizitzeko betekizuna, dekretu horren 2. paragrafoko 4. artikuluan agindutakoari jarraituz: eskaera aurkeztu aurretik urtebetez jarraian bizi izana, edo, egoera hori ezin ahalko balitz egiaztatu eta eskaera datan EAEn errolatuta balego, azken hamar urteetan bost urtez jarraian bertan bizi izana.

2. **Frogagiririk aurkeztu ez izana administrazioak berariazko errekerimendua egin arren:**

Kasu honetan, kexagileak materialki betetzen ditu eskatutako laguntza jasotzeko betekizunak baina, eskaera egiterakoan, ez du aurkeztu hori egiaztatzen duen dokumentazioa –hau da, eskaeraren aurreko urtean bizi den Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako errolda-ziurtagiri desberdinak–. Hala, ez du dokumentazioa aurkeztu, ez hasierako eskaera egiterakoan, ez geroago Eusko Jaurlaritzak emandako entzunaldi-izapidean. Zehazki, Eusko Jaurlaritzak izapide hori eman dio, prozedura honi oraindik aplikatu beharreko legearen, hau da, *Herri-administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko abenduaren 22ko 30/1992 Legearen 71.1. artikulua*¹arabera (horren edukia jasotzen da gaur egun *Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen* indarreko 68.1. artikuluan), bere eskaeraren hasierako akatsa zuzen dezan. Zuzentzeko izapide horretan, administrazioak beren-beregi eskatzen dio interesdunari 10 laneguneko epean aurkezteko honako hau: *“(sic) Eskatzailearen erroldatze-agiria, non egiaztatzen den Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta egon dela eskaera aurkeztu baino urtebete lehenagotik edo bost urte segidan azken hamar urteetan (2016-05-06AREN AURREKOA)*. Hain zuzen ere, egiazta daiteke, egia izan arren -gora jotzeko errekurtsua aurkezterakoan administrazio jardulearen aurrean frogatu den bezala- interesdunak materialki betetzen duela laguntza hauei aplikatu beharreko 30/2015 Dekretuaren 4.2. artikuluan ezarritako EAeko egoitza eraginkorraren betekizuna, interesdunak ez duela egiaztapen hori baliatu, ez eskaera aurkezterakoan, ez geroago Eusko Jaurlaritzak beren-beregi horretarako gaitutako zuzenketaren unean. Ez zen aurkeztu laguntza hauen dekretu arautzailearen 4.2. artikuluan ezarritako Euskadin benetan bizitzeko betekizuna egiaztatzen zuen frogagiririk; hortaz, administrazio jarduleak ebatzi zuen eskatutako laguntza ukatzea, zehazki, laguntza hauen dekretu arautzailearen 4.2. artikuluan oinarrituz. Geroago, interesdunak ezespenez-ebazpenaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsuaren izapidetzean, falta zen dokumentazio guztia aurkeztu zuen aplikagarria den araudiak

¹ 71. artikulua. Eskabidea zuzendu eta hobetzea

1. Prozedura hasteko eskabidean betetzen ez badira aurreko artikuluko baldintzak edo aplikagarri den berariazko legedian eskatutakoak, interesdunari eskakizuna egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko. Era berean, jakinarazi egingo zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena 42. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.



eskatutako Euskadiko egoitza egiaztatu ahal izateko, hain zuzen ere, eskaeraren dataren aurretik. Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzak 39/2015 Legearen 118. artikuluan babesten da (hori aplikatu behar zaio prozedura honen errekurtsioen araubideari, aurretik adierazi den bezala), hauxe xedatzen duena: *"Errekurtsoak ebaztean, ez da kontuan hartuko errekurtsio-jartzaileak alegazioen izapidean aurkeztu ez duen egitate, dokumentu eta alegaziorik, alegazioen izapidean aurkezteko aukera izan bazuen"*. Izan ere, horretan oinarritzen da gora jotzeko errekurtsioa ezesteko, ikusita prozeduraren une horretan aurkeztutako dokumentazioa garaiz kanpoko delat.

3. **Administrazioaren betebeharra daukan dokumentazioa ez eskatzeko.** Hala ere, administrazioak une horretan ez zuen kontuan hartu egindako eskaera ez zela seme edo alaba baten jaiotzagatiko hasierako laguntzaren eskaera, baizik eta aurretik eskatutako laguntzak mantentzeko laguntza baten eskaera eta, horrenbestez, administrazio jarduleak aurretik emandako segidako traktuko laguntza horiekin lotutako dokumentazioa zuela. Erakunde honen ustez, dokumentazio horrek egiaztatu egiten du laguntza hauek arautzen dituen dekretuaren 4.2. artikuluan ezarritako betekizuna betetzen dela, jarraian azaltzen den bezala.

Hain zuzen ere, prozedura honi aplikatu behar zaion *Herri-administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko abenduaren 2ko 3071992 Legearen* ^{235.f)} artikulua arabera - administrazioak berak Arartekoari emandako erantzunean adierazten duenari jarraiki-, 39/2015 Legearen Hirugarren Xedapen Iragankorraren a) atalaren arabera, herritar honek eskubidea zeukan administrazio jarduleak jadanik zuen dokumentu bat ez aurkezteko. Eusko Jaurlaritzak adierazitakoaren arabera, interesdunak aurreko laguntzen eskaeraren espedientearen egiaztatu zuen, Eusko Jaurlaritzan espedienteak erreferentzia hau dauka: (...), (...)ko udalerrian bizi izan zela 2015-05-05era arte; hala ere, ez zuen egiaztatu, - Eusko Jaurlaritzak esan duen bezala-, data horretatik 2016-05-06ra arte bertan bizi izan zen; izan ere, data horretan beste udalerrira batera (...) bizitzera joan zen, etxez aldatu ostean. Hau da, kontuan hartuta eskaera 2016ko maiatzaren 23an egin zela eta (...)ko udalerriko egoitza behar bezala egiaztatu zela 2016-05-06tik, nahiz eta aintzat hartzen den administrazio jarduleak daukan dokumentazioa, esan beharra dago ez dela betetzen eskaera egin aurreko urtebeteko egoitza eraginkorreko epearen egiaztapena, dekretu arautzailearen 4.2. artikulua ezartzen duena lehenengo hitz-tartean.

Aurrekoa gorabehera, Eusko Jaurlaritzak guztiz ahazten du bere erantzunean hauxe aipatzea: administrazio jarduleak jadanik zeukan dokumentazio hori aztertu ondoren, egiaztatuta dago interesdunak laguntza hauen dekretu arautzailearen 4.2. artikuluan bertan ezarritako EAEko egoitza eraginkorreko

^{235.} artikulua. Herritarren eskubideak.

Herritarrek herri-administrazioekiko harremanetan eskubide hauek dituzte:

f) Ez dute aurkeztu beharrik kasuan kasuko prozedurari aplikatu dakizkiokeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk.





beste formula betetzen zuela. Zehazki, hauxe ezartzen da artikulua horren bigarren atalean:

"Onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan bizi behar du modu eraginkorrean, eta bertako erroldan egon, gutxienez eskaera aurkeztu baino urtebete lehenagotik. Eskaera aurkezterako Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan bizi eta erroldatuta dagoen orok diru-laguntza horiek eskatu eta jaso ditzake, aurreko hamabi hilabeteetan bertan etengabe bizi ez izanagatik eta erroldatuta ez egonagatik ere, baldin eta egiaztatzen badu azken hamar urteetan bost urte segidan eman dituela Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzen eta erroldatuta."

Hori horrela da interesduna (...)ko udalerrian erroldatuta zegoelako 2009-11-06tik. Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak jasota zeukan, herritar honek aurreko urteetan bi seme-alabengatik eskatutako laguntzak zirela-eta aurkeztutako dokumentazioa ikusita eta, zehazki, herritarrak aurkeztutako eta Eusko Jaurlaritzak (...), espedientean zeukala aitortutako (...)ko udalerriko azken erroldatze-agiria ikusita, interesduna EAEn bizi izan dela gutxienez 2009-11-06tik (data horretan eman zuen alta udalerrian, erroldatze-agirian agertzen den bezala) 2015-05-06ra arte. Beraz, horrek esan nahi du, eskaera egin (2016-05-23) aurreko azken hamar urteetan, bost urtez baino gehiago bizi izan dela bertan; halaber, egiaztatu egin da, laguntza mantentzeko eskaerarekin batera, data horretan (2016-05-23) (...)ko udalerrian bizi zela 2016-05-06tik, hau da, eskaera egin aurreko azken hamabi hilabeteetan EAEn erroldatuta zegoela, nahiz eta hori etengabe egiaztatu ez zuen.

Azkenik, herritarrak betebeharra dauka -30/1992 Legearen 35.f) artikulua aplikaziotik ondorioztatzen dena- administrazioari berariaz adierazteko kontuan hartu beharreko dokumentua. Hala ere, kasu honetan, ezin zaio interesdunari eskatu Eusko Jaurlaritzaren Familia-politikako Zuzendaritzari beren-beregi eskatzeko dokumentazioa aintzat hartzeko, hots, bere izenean irekitako ardurapeko seme-alaba berberengatik eskatutako laguntzen espediente zela-eta zuzendaritza horren aurrean aurkeztutako dokumentazioa. Izan ere, herritarrak aurretik aitortutako segidako traktuko laguntzak mantentzeko laguntza bat eskatu zuen; hortaz, zalantzarik gabe, Eusko Jaurlaritzaren organoak irekitako ardurapeko seme-alabengatik laguntza horien espediente desberdinen kudeaketa bateratua eta koordinatua eskatzen zuen egoera horrek.

Datu horiek ikusita, ez dago zer esaterik 30/2015 Dekretuaren 4.2. artikulua bigarren atalean ezarritako betekizunaren egiaztapena betetzearen inguruan; horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak EAeko egoitza eraginkorreko betekizuna frogatu ez izanari -prozeduraren une egokian-dagokionez emandako argudiatze guztia indargabetu behar da, horretan oinarritzen baita laguntzaren ukapena.



4. **Zuzentzeko errekerimenduan eta ukatzeko emandako ebazpenean adierazi ez zen ukatzeko arrazoi berria: diru-laguntza eskatzen den urteko urtarrilaren 1ean seme-alabekin bizi izana ez egiaztatzea.** Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzak, erakunde honi emandako erantzunean, elementu berri bat alegatzen du laguntza ukatzeko oinarri gisa (hala ere, ez ukatzeko emandako ebazpenean, ez gora jotzeko errekurtsua ezetsi zuen ebazpenean, ez da hori aipatzen). Eusko Jaurlaritzaren ustez, ez da 30/2015 Dekretuaren 16.b) artikuluan ezarritakoa betetzen dela egiaztatu; zehazki, artikuluko horrek mantentze-laguntzak izenekoen eskaera aurkezteko epea ezartzen du honela: *“Laguntza-eskaerak aurkezteko epea honako hau izango da: b) Diru-laguntza jaso dezakeen egoerari dagokien mantenu-laguntzetarako, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean familia-unitatean dauden seme-alabei dagokienez, eskariak semeak edo alabak dagokion adina betetzen duenean aurkeztu ahal izango dira eskariak, dekretu honetako 5. artikuluko bigarren paragrafoan elkarbanatutako zaintza eta babespe-egoeretarako xedatutakoari kalterik eragin gabe.”* Hitzez hitz jasotako artikuluko horretatik, Eusko Jaurlaritzak ondorioztatzen du nahitaez egiaztatu egin behar dela 2016ko urtarrilaren 1ean interesduna bere seme-alabak erroldatuta zeuden etxebizitza berean erroldatuta zegoela.

Egia esan, datu hori ezin da ondorioztatu administrazioak daukan dokumentaziotik, ezta interesdunak eskaera egiterakoan eta zuzenketa egiterakoan aurkeztutako erroldatze-agiritik ere. Hala ere, egia da datu hori ondoriozta daitekeela interesdunak gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zuenean emandako dokumentaziotik, hau da, Eusko Jaurlaritzak, Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 118. artikulua aplikatuz, garaiz kanpokotzat jo duen dokumentaziotik.

Jarraian, azken manu horrek gai horrekin lotuta duen irismena aztertzen da, ikusita **ez dela inola ere aipatzen** laguntzen dekretu arautzailearen **16.b) artikuluan jasotako exigentzia hasierako eskaera zuzentzeko gaitutako izapidetzean** (ezta geroago ere laguntza ukatzeko emandako ebazpenean, ukapenaren oinarri gisa), nahiz eta, Arartekoari emandako erantzunean, Eusko Jaurlaritzak erabakia hartzeko oinarritzat arrazoi hori aipatzen duen.

5. **39/2015 Legearen 118. artikulua aplikazioaren irismena, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen 30/2015 Dekretuaren 16.b) artikuluan ezarritakoa betetzeari dagokionez.**

Arartekoak zenbaitetan adierazi du komenigarria dela zorrotasuna malgutzea 39/2015 Legearen 118.1. artikulua aplikazioan³, hauxe ezartzen duena:

³ 118. artikulua. Interesdunei entzunaldia ematea

1. (...)

Errekurtsoak ebaztean, ez da kontuan hartuko errekurtsu-jartzaileak alegazioen izapidetan aurkeztu ez duen egitate, dokumentu eta alegaziorik, alegazioen izapidetan aurkezteko aukera izan bazuen. Ezin eskatuko da frogak egiteko, orobat, ebazpen errekurritua eman zen prozeduran ez egin izana interesdunari inputa dakiokenean.

*"Errekurtsoak ebaztean, ez da kontuan hartuko errekurtsio-jartzaileak alegazioen izapidean aurkeztu ez duen egitate, dokumentu eta alegaziorik, alegazioen izapidean aurkezteko aukera izan bazuen". Hori adierazten du aintzat hartuta administrazioarekiko auzien jurisdikziotik eska daitekeen izaera osoa (historikoki jurisdikzio horri soilik berrikusteko izaera esleitu dion guztiz formalista den kontzepzio hori gaindituz). Jurisdikzio-kontrolaren osotasun horrek, azkenik -Konstituzioaren 24.1. artikuluan ezarritako benetako babes judizialerako eskubidearen arabera-, ahalbidetu beharko luke bide judizialean aurretik alegatu ez ziren aurkatze-arrazoi berriak alegatzea. Gainera, horrenbestez, hori administrazio-bideko aurkatze-egiturari aplikatu ahal zaio, hots, prozedura nagusiari dagokionez. Interpretazio-ildo horrek laguntzen du administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren izaera osoa finkatzen eta ildo horren behin betiko oinarria jasotzen da berriki emandako [Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 5eko 23/2018 Epaian](#). Epaia horrek aipatzen du administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren izaera ikuskatzailearen irismen mugatua, besteak beste, honako hau zehaztuz: *"es obligación ineludible de este Tribunal rechazar toda aplicación de las leyes que conduzca a negar el derecho a la tutela judicial con quebranto del principio pro actione (STC 98/1992, de 22 de junio, FJ 3; en el mismo sentido, ATC 765/1984, de 5 de diciembre, FJ 3)"*.*

Era berean, aipatutako epai horrek azaltzen du Auzitegi Gorenak hauxe adierazten zuela uztailaren 26ko 155/2012 Epaian (hirugarren oinarri juridikoa): *"la desaprobación que, desde el prisma constitucional, merecen las resoluciones judiciales que circunscriben la función de la jurisdicción contencioso-administrativa a un exclusivo análisis de las alegaciones formuladas previamente ante la Administración. (...) "en relación con el grado de vinculación entre las alegaciones formuladas en la vía administrativa y en el proceso contencioso-administrativo, este Tribunal tiene ya una consolidada doctrina, de la que resulta exponente la STC 180/2005, de 4 de julio, según la cual no resulta atendible desde la óptica constitucional que nos es propia la consideración del **carácter revisor** de la jurisdicción contencioso-administrativa más allá de la necesidad de la existencia de una actuación administrativa en relación a la cual se deducen las pretensiones procesales para un enjuiciamiento pleno por parte de los órganos judiciales de la actuación administrativa, eso sí, dentro de lo aducido por las partes (art. 43 de la Ley de la jurisdicción contencioso-administrativa de 1956 y art. 33 LJCA), las cuales podrán alegar cuantos motivos procedan, aun cuando no se hayan expuesto ante la Administración (art. 69.1 LJCA 1956 y art. 56.1 LJCA 1998). Y es que, sobre el **carácter pleno de la jurisdicción contencioso-administrativa y la falta de vinculación estricta a los motivos alegados en la vía administrativa si se quiere respetar el derecho a la tutela judicial efectiva, ya se ha pronunciado este Tribunal en más de una ocasión"**. (Azpimarratua Arartekoarena da).*

Hala eta guztiz ere, egia da, aurrekoa gorabehera, administrazio-prozeduraren barne-egiturari eta errekurtsioen administrazio-bideari dagokienez, legegileak





ez duela ezer egin Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen indarreko 118. artikulua hitzez hitzeko zentzua aldatzeko 39/2015 Legeak egindako administrazio-prozeduraren erreformaren ostean. Horregatik, erakunde honen ustez, manu horren aplikazio malgua soilik izango litzateke predikagarria, hain zuzen ere, administrazio-prozedura nagusian aurretiazko defentsa-aukerarik egon ez bada entzunaldi-izapide zehatz baten bidez. Hau da, kasu honetan, betiere kontuan hartuta, eskaera osorik ez zegoela egiaztatu ostean, administrazio-prozeduran administrazioak egindako zuzentzeko errekerimendua egin ez dela edo ez dela behar bezain argia izan, hasierako eskaera zuzentze aldera zuzendu beharreko akatsari dagokionez. Hala ere, zuzentzeko errekerimendua argi egin bada administrazioak eskaeran antzemandako akatsa zuzentzeko aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, ezin da alde batera utzi interesdunak alegatzeko aukera izan zuela, zuzendu beharreko akatsaren ezagutza espezifikoarekin. Hortaz, jo daiteke defentsarako eskubidea behar bezala zaindu zela.

Puntu honetan, Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salaren jarrera aipatzea komeni da; izan ere, horrek 2010eko martxoaren 17ko Epaian aitortu zuen mota guztietako elementuak, egitateak edo dokumentuak gehitzeko zilegitasuna, baldin eta horrekin interes orokorrak hobeto bermatzen dituen erabaki bat hartzea ahalbidetzen den. Horrela, epai honen seigarren oinarri juridikoan, auzitegiak adierazten du errekurritutako ebazpen judizialean: *“se sostiene una tesis errónea sobre la función de los recursos administrativos, a resultas de la cual no cabría introducir en éstos ‘elementos nuevos’ sobre los que no hubiera podido pronunciarse el órgano que dictó la resolución impugnada.*

Es errónea la tesis, decimos, y parte de una concepción no aceptable del ‘carácter revisor’ de los recursos administrativos que difiere de la que preside los artículos 107 a 119 de la Ley 30/1992 (RCL 1992, 2512 , 2775 y RCL 1993, 246) , de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. En contra de lo afirmado por la resolución que examinamos, es lícito introducir en los recursos de alzada o de reposición hechos, elementos o documentos nuevos, no recogidos en el expediente originario. La posibilidad está expresamente prevista en el artículo 112.1 de la Ley 30/1992 (e implícita asimismo en el apartado tercero del artículo 113) y es coherente, por lo demás, con la función propia de estos mecanismos de revisión de la actividad administrativa.

Los recursos administrativos, además de garantía para los administrados, son también un instrumento de control interno de la actividad de la Administración en la que un órgano superior -o el mismo, en reposición-revisa en toda su extensión lo hecho por otro, sin estar necesariamente vinculado al análisis de los meros elementos de hecho o derecho que este último hubiera tenido o podido tener en cuenta. Lo que se pretende con los recursos es posibilitar una mejor decisión que sirva con objetividad los intereses generales, y ello será tanto más factible cuantos más elementos de



juicio se pongan a disposición de quien ha de decidir finalmente sobre la impugnación.

El órgano que resuelve el recurso no está constreñido por los solos datos presentes en la resolución originaria. Tras el acuerdo inicial pueden alegarse en vía de recurso administrativo hechos, elementos o documentos de todo tipo, también los de fecha posterior a aquél, si de ellos se deducen consecuencias jurídicas relevantes para la mejor resolución del expediente. El recurso administrativo, salvados los límites de la congruencia y la imposibilidad de gravar la situación inicial del recurrente (artículo 113 in fine de la Ley 30/1992), permite una reconsideración plena, sin restricciones, del asunto sujeto a revisión. Reconsideración en la que, insistimos, pueden alegar los impugnantes cualesquiera hechos o elementos de juicio, también los que no se pudieron tener en cuenta originariamente pero sean relevantes para la decisión final.” (guk azpimarratu dugu).

Hortaz, Auzitegi Gorenak ondorioztatu egin du “elementu berriak” gehitzeko aukerak Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen legean daukala araudi-babesa. Are zehatzago, uste du “beren-beregi aurreikusita” dagoela aurreko 30/1992 Legearen 112. artikuluan, gaur egun 39/2015 Legearen 118.1⁴ artikulua lehengo paragrafoak jasotzen duena. Beraz, adostasun-printzipioa bermatuta eta kexagilearen egoera okertzea ezinezkoa denez, errekurtsua ezagutzen duen organoak espedientean zehar sortzen diren kontu guztiak ebatzi beharko ditu, interesdunak horiek alegatu dituen edo ez gorabehera.

Ildo beretik, Auzitegi Gorenaren 2017ko apirilaren 20ko Epaia (kasazio-zenbakia: 615/2016) ere aipatu beharra dago; bertan, Auzitegi Gorenak, 2010eko otsailaren 11ko (kasazioa: 9779/2004), 2012ko ekainaren 20ko (kasazioa: 3421/2010), 2015eko ekainaren 24ko (kasazioa: 1936/2013) eta 2017ko apirilaren 20ko (kasazio-zenbakia: 615/2016) ebazpenetan ezarritako doktrinan oinarrituta, laugarren oinarri juridikoan modu kategorikoan ondorioztatzen du honako hau: **“por lo tanto asistía la razón a la parte recurrente en este caso para que la documentación acompañada con su escrito de interposición al recurso de reposición fuese valorada y tenida en cuenta a la hora de resolverse en vía administrativa, sin que su aportación en dicho momento fuese obstáculo insalvable para hacerlo. (...) si en vía económico-administrativa y en vía judicial es posible aportar la documentación que el actor estime procedente para impugnar una resolución tributaria, parece mucho más lógico que pueda hacerse antes en el discurrir procedimental y aportarse en el primero de los medios de impugnación que pueden ejercitarse”.** (Azpimarratua Arartekoarena da)

4 118.1 artikulua haxe xedatzen du lehengo paragrafoan: “[c]uando hayan de tenerse en cuenta nuevos hechos o documentos no recogidos en el expediente originario, se pondrán de manifiesto a los interesados para que, en un plazo no inferior a diez días ni superior a quince, formulen las alegaciones y presenten los documentos y justificantes que estimen procedentes”.

Halaber, jurisprudentzia-doktrina honen araudi-oinarria dago *Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen* 56.3. artikuluan. Zehazki, horrek interesdunari ahalbidetzen dio, demandarekin batera, eskuragarri daukan dokumentazio guztia aurkeztea bere eskubidea egiaztatze aldera. Hain zuzen ere, araudi-xedapen horretatik abiatuta, Auzitegi Gorenak hauxe erabaki du: “(...) *si esto es así en vía jurisdiccional, con más razón debe ser así cuando la documentación se aporta en sede de recurso de reposición*”⁵.

Kontuan hartu behar da, kasu honetan, interesdunak ez zuela aukerarik izan laguntza hauek arautzen dituen dekretuaren 16.b) artikulutik ondorioztatzen den betekizuna betetzen zuela frogatzeko; izan ere, ez zitzaion errekerimendurik egin akatsa zuzentzeko. Hori zuzentzen da gora jotzeko errekurtsuan hasierako eskaerarekin batera erantsi ez zuen dokumentazioa aurkeztuz. Hortaz, kasu hauetan, administrazioak araudian aurreikusitako betekizunak betetzen direla behar bezala egiaztatzen duen dokumentazioaren berri badu, hori kontuan hartu beharko litzateke eta dokumentazioa errekurtsuaren fasean aurkezteak ezingo luke hori ezestea eragin, garaiz kanpokoa izateagatik. Hori horrela da, besteak beste, aitzitik interesdunaren defentsa oro oztopatuko litzatekeelako eta, horrenbestez, benetako babes judizialerako eskubidea jasotzen duen Konstituzioaren 24.1. artikulua urratuko litzatekeelako. Izan ere, horren edukitik ondorioztatzen da defentsarako eskubidea, interesdunaren interesak eta asmoak gauzatzeko froga-bitarteko guztiak erabiliz. Hortaz, aurretik adierazi den bezala, egoitza judizialean bestelako froga-bitartekoak erabil daitezke eta, are gehiago, administrazio-egoitzan eta errekurtsu-fasean aurkeztea posible izan behar da, bereziki, administrazio-prozedura nagusian egin ezin izan denean. Hain zuzen ere, ez delako horretarako berariazko errekerimendurik egin akatsak zuzentzeko fasean eta, gainera, ukatzeko emandako ebazpena ez da oinarritu administrazioak orain emandako arrazoian.

Egia esan, kasu honetan, ezin da alde batera utzi, 4.2. artikuluan⁶ jasotako EAEko egoitza eraginkorreko betekizunari dagokionez, zuzentzeko errekerimendu argia existitzen dela, hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko beharra argi eta garbi adierazten duena. Aurrekoari esker, Eusko Jaurlaritzak, Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 118.1. artikulua arabera, garaiz kanpokotzat jo dezake betekizun horren betetzearen egiaztapen dokumentala gora jotzeko errekurtsuaren fasean. Izan ere, interesdunak berariazko aukera izan zuen hori prozedura nagusian egiteko eta, horrela, entzunaldirako eskubidea errespetatu zitzaion. Hala eta guztiz ere, errekerimendu horrek ez zuen ezer aipatzen egiaztatzeko beharraren inguruan, hau da, 2016ko urtarrilaren 1ean, interesduna bere seme-alabekin etxebizitza berean bizi zela egiaztatzeko beharraren inguruan.

5 Horretarako, ikusi Auzitegi Gorenaren 2015eko ekainaren 24ko Epaia (kasazio-errekurtsua: 1936/2013).

6 Errekerimenduak interesdunari dei egiten dio hamar eguneko epean hauxe aurkezteko: “(sic) *Eskatzailerean erroldatze-agiria, non egiaztatzen den Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egon dela eskaera aurkeztu baino urtebete lehenagotik edo bost urte segidan azken hamar urteetan* (2016-05-06AREN AURREKOA).



Izan ere, Eusko Jaurlaritzak, erakunde honen informazio-eskaerari emandako erantzunean, betekizun hori ondorioztatzen du laguntza hauek arautzen dituen dekretuaren 16.b) artikulutik.

Aurreko guztia ikusita, EAEko egoitza eraginkorreko betekizunari dagokionez, nahiz eta gora jotzeko errekurtsoren fasean egiaztapena garaiz kanpokotzat egin dela onartzen den, jadanik azertu egin dira ebazpen honen hirugarren gogoetan erakunde honek administrazio jardule berak eskura zuen dokumentazioa aurkezteko eskatzea desegokitzat jotzeko dituen arrazoiak.

Hala ere, badago alde nabarmena aurrekoaren eta Eusko Jaurlaritzak laguntza hauek arautzen dituen dekretuaren 16.b) artikulutik ondorioztatzen duen betekizuna egiaztatzeko eskakizunaren artean: administrazioak inola ere eskatu ez izana interesdunari data zehatz batean seme-alabekin bizi zela egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteko, 30/1992 Legearen 71.1. artikulua ohiak hasierako eskaera zuzentzeko gaitutako izapidetzea dela-eta. Gainera, ezin da onartu administrazioak (erakunde honi emandako erantzunean egiten duen bezala) administrazio-ebazpenean zehaztuta ez dagoen beste arrazoi bat ematea ukatzeko erabaki hori justifikatzeko. Izan ere, horretarako ez zatekeen defentsa-aukerarik egongo aurkatzeko bidean eta horrela 39/2015 Legearen artikuluetan eta Konstituzioaren 24.1. artikuluan bertan ezarritako defentsarako gutxiengo bermeak urratuko lirarteke.

Horregatik guztiagatik, puntu honetan, guztiz nabarmenak dira **errekerimendu hori egin ez izana eta orain aipatutako oinarri berri horretan ukatzeko ebazpena beren-beregi arrazoitu ez izana**. Izan ere, erakunde honen aburuz eta azaldutako jurisprudentzia-doktrinari jarraiki, **elementu horiek eragin nabarmena dute Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 118.1. artikulua interesdunak gora jotzeko errekurtsioan aurkeztutako dokumentazioa garaiz kanpokotzat jotzerakoan izan dezakeen irismenean**.

Zentzu horretan, adierazi behar da, erakunde honen ustez, administrazioak interesdunak errekurtsio-fasean aurkeztutako dokumentazioa baliozkotu behar duela, ez laguntza hauen dekretu arautzailearen 4.2. artikulua egiaztapen bezala (horren betetzea –aurretik azaldu den bezala– behar bezala ondoriozta zitekeen administrazio jarduleak zuen dokumentaziotik eta horrek desaktibatzen du zuzentzeko egindako berariazko errekerimendua betetzeko betebeharra), baizik eta aipatutako 16.b) artikulua betetzen denaren egiaztapen bezala.

Horrenbestez, erakunde honek uste du, ebazpen honetan azaldutako argudioak ikusita, administrazioak berrikusi egin behar duela ukatzeko emandako ebazpena eta kexagileari aitortu eskatutako laguntza.

* * *





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Azaldutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ezespren-ebazpena berrikusteko eta kexagileak eskatutako laguntza aitortzeko, kargura duen bigarren semearengatiko laguntzaren mantentzeko kontzeptuan, *seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuaren arabera.*

